# 3i Programa: Berrikuntzari, nazioartekotzeari eta inbertsioari laguntza integrala emateko 2023

| | |
|---|---|
| Xedea<br>(1. oinarria) | Enpresen lehiakortasuna hobetzen duten eragiteko indar handiko proiektuak laguntzea du xede, proiektu horiek berrikuntzan nazioartekotzean eta inbertsioan eragiten duten ekintza integralak jasotzen dituztela |
| Erakunde onuradunak<br>(3. oinarria) | Jarduera nagusia industria, eraikuntza, garraioak, industriari lotutako zerbitzuak, turismoa edo handizkako merkataritzan sektoreen barruan dauden enpresa ertainak eta txikiak, eta hurrengo baldintzak betetzen badituzte:<br>▪ Gutxienez ekoizpen zentro bat, edo balio erantsi handiko zentro bat Bizkaiko L.H.an izatea edo proiektuaren ondorioz ezartzea.<br>▪ 10 eta 249 pertsona arteko plantilla izatea lanaldi osoan, baina betiere urteko kopuru baliokideetan.<br>▪ Gutxienez, ondorengo bi mugetatik bat ez gainditzea.<br>o 50.000.000 euroko urteko negozio kopurua.<br>o 43.000.000 euroko balantze orokorra. |
| Diruz lagundu daitekeen egitatea<br>(4. oinarria) | Erakundearen lehiakortasuna hobetzera bideratutako jarduketa estrategikoak proiektu integral bat izan behar du. Proiektu honek hiru arloetatik (berrikuntza, inbertsioa eta nazioartekotzea) gutxienez bi bete behar izan ditu, Bizkaiko ekoizpen-zentro batean garatzen delarik. |
| Diruz lagungarriak diren gastuak<br>(5. oinarria) | Diruz lagun daitezkeen gastuak:<br>▪ Aktibo materialetako inbertsioa.<br>▪ Berrikuntza, inbertsio eta nazioartekotzerako aholkularitza-zerbitzuak.<br>▪ Atzerriko merkataritza-azoketan parte-hartzea.<br>▪ Garapen esperimentaleko eta bideragarritasun-azterlanetako jarduerak (langileria eta zeharkako gastuak barne).<br>▪ Prozesuetako eta antolatzeko berrikuntzako jarduerak (langileria eta zeharkako gastuak barne).<br>▪ Patenteen eta beste aktibo ez-material batzuen lorpena, baliozkotzea eta defentsa.<br>Ezin izango dute diru-laguntza jaso:<br>▪ Zergak eta tasak, BEZa barne (BEZa berreskuratu ezin den kasuetan ere bai).<br>▪ Bidaien, otorduen eta mantenuaren gastuak.<br>▪ Edozein kudeaketa-sistema ezartzeko gastuak.<br>▪ Patentearen eskabideari, erabilgarritasun ereduari edo diseinuari aurkeztutako alegazioen erantzunak edo aurkakotasunak sortutako defentsa legalen gastuak.<br>▪ Jabetza industrialaren bulegoetako urteko ordainketak.<br>▪ 1.000 € (BEZa kenduta) baino gutxiagoko fakturak sortzen dituzten kanpoko gastuak |

**Laguntzen zenbatekoa** (6. oinarria)

| Kategoriaren araberako laguntzaren gehieneko portzentaia: | Enpresa txikia | Beste ETEE batzuk |
|---|---|---|
| Aktibo finkoetako inbertsioa | % 20 | % 10 |
| Berrikuntza, inbertsio eta nazioartekotzerako aholkularitza-zerbitzuak | % 50 | % 50 |
| Atzerriko merkataritza-azoketako partaidetza | % 50 | % 50 |
| Garapen esperimentaleko jarduerak eta bideragarritasun-lanak | % 45 | % 35 |
| Prozesuetako eta antolatzeko berrikuntza-jarduerak | % 50 | % 50 |
| Patenteen eta beste aktibo ez-material batzuen lorpena, baliozkotzea eta defentsa | % 50 | % 50 |
| Laguntzaren gehieneko zenbatekoa | 450.000 € | 500.000 € |

Enpresa txikia: 50 pertsona baino gutxiagori okupazioa eskaintzen dien eta urteko negozio-kopuruak edo urteko balantze orokorrak 10 milioi euroko kopurua gainditzen ez duen enpresa

- Diruz lagun daitekeen gutxieneko oinarria 500.000 € izango da, kopuru horretatik gehienez %50 langile-gastuak izan daitezkeelarik.

| | |
|---|---|
| Arautegia eta emakida prozedura | 158/2022 Foru Dekretua, abenduaren 20koa (BAO 243 zk. 2022eko abenduaren 23koa).<br>Diru-laguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da. |
| Epeak<br>(13. eta 25. oinarriak) | Eskabideak aurkezteko epea: 2023ko otsailaren 6ko 8:30etatik 2023ko otsailaren 24ko 13:30etara arte Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez (www.bizkaia.eus/sustapena-BulegoBirtuala). Horretarako sinadura elektronikoa izan beharko duzu (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA…) edo B@kQ ziurtagiri elektronikoa erabiltzea; ziurtagiri hau Orueta Apezpikuaren kaleko 6.ean eska daiteke.<br>Proiektuak gauzatzeko epea: Laguntza-eskabidea aurkeztu ondoren eta 2023ko abenduaren 31a baino lehen hasi beharko dira eta 2024ko abenduaren 31 baino lehen bukatu. |

Ekonomia Sustatzeko Saila
Berrikuntza Zerbitzua,
Orueta apezpikua, 6. 48009 Bilbao

Argibideak:
Tf.: 94 406 8008
berrikuntzazerbitzua@bizkaia.eus
www.bizkaia.eus